

Gaberako aterbea

“**Gaberako aterbea**” Bertolt Brechten poema batean oinarritutako Mikel Laboaren abestia izan zen. Lehen aldiz 1972an *Euskal Kanta Berria* albumean agertu zen. 1989an, berriro, *Hamabi* diskoan berrargitaratu zuen.

Negu Gorriak taldeak 1990ean bere bertsioa egin zuen *Txerokee*, *Mikel Laboaren kantak* omenezko albumerako. Taldeak kantaren lehenengo estrofatik hartu zuten bere izena, hain zuzen ere.

Gero Irungo taldeak *Negu Gorriak* diskoaren barruan ere kaleratu zuen.



1- Gaberako aterbea. Jatorrizkoa

Kanta entzun aurretik bete itzazu hutsuneak aukera zuzena hautatuz. Gero, Mikel Laboaren kanta entzun eta konprobatu erantzunak. Entzundakoan erantzun ondorengo galderei.

Gaberako aterbea

Kontatu didate Nueva York-en
Broadway eta 26 karrikaren kantoian
negu gorrian, gizon batek gabero
jendeari otoi eskatzen

___1___ bilatzen duela
___2___ daudenentzat.

Mundua ez da era hortan aldatzen,
gizonen hartu-emanak ez dira hobekitzen,
zama-aroa ez da hola laburtzen,
baina gizon batzuek gau batez ___3___ dute,
aterbean haize ___4___ ez eta
bereri zihoakien ___5___ karrikan ari da.
Liburuaren irakaspenik ez ahaztu gizona.

Gizon batzuek gau batez ___3___ dute,
aterbean haize ___4___ ez eta
bereri zihoakien ___5___ karrikan ari da.

Baina mundua ez da era hortan aldatzen,
gizonen hartu-emanak ez dira hobekitzen,
zama-aroa ez da hola laburtzen.

1- boterea
aterpea
aberea

2- nahasirik
mozorroturik
bilutsirik

3- labea
nekea
ohea

4- motzik
hotzik
egokiturik

5- elurra
beldurra
gezurra



1- Zein da, zure ustez, kantaren esanahia?

- Denok eramango bagenu aterperik gabeko pertsona bat etxera, txirotasuna bukatuko litzateke.
- Egun batez etxerik gabeko pertsona bat etxera eramateak ez du ezertarako balio, beraz, hobe ez egitea.
- Karitateak akaso ez du mundua eraldatuko, baina larrialdi egoera batean dauden pertsonentzat lagungarria izan daiteke.

2- Eta zein da zure iritzia kantalak planteatzen duen gatazkari buruz? Komentatu ikaskideekin:

- Zerbaitetarako balio al du karitateak? Gure kontzientziak lasaitzeko bakarrik?
- Elkartasunak balio dezake mundua aldatzeko?
- Gauza bera dira elkartasuna eta karitatea?

3- Zer iruditzen zaizkizu supermerkatu sarreretan izan ohi diren eskaleak?

- Kasu egin eta sosik ematen al diezu? Ez diezu kasurik egiten? Gogaikarriak iruditzen zaizkizu?
- Debekatu beharko litzateke kalean eskean ibiltzea?

2- Gaberako aterbea. Bertsioa

Jarraian, kanta beraren beste bertsio bat entzungo duzu, 1990an Negu Gorriak taldeak egindako bertsio garraztuagoa.



- Zein duzu gustukoen? Zergatik?
- Ezagutzen al duzu beste bertsio gogoangarririk?
- Zein duzu gustukoen jatorrizkoa ala bertsioa?

3- Broadway eta 26 karrikaren kantoian

Irakurri ondorengo albiste hau. Zer iruditzen zaizue egilearen ekintza? Esku hartze artistikoa ala bandalismoa?

Broadway eta 26 karrikaren kantoian

2017an Baluk, Katalunian bizi den artista gipuzkoarrak, ekintza artistiko xeble bat egin zuen New Yorken, Broadway eta 26. kaleko bidegurutzean. Egileak neurri handiko bi aurpegi itsatsi zituen iskina horretako postontzi batean, 1972an Bertolt Brech idazle alemaniarren hitzen gainean Mikel Laboak egindako kantak irudikatzen duen lekuan, hain zuzen ere. Afitxa horiek Mikel Laboaren eta Fermin Muguruzaren aurpegiak azaltzen dituzte, Brechen olerkia musikatu eta ospetsu bihurtu zuten bi musikari euskaldunenak. New Yorkeko oinezkoek, segur aski, ez zioten erreparatuko artistaren lanaren esanahiari, baina euskaldunontzat sinbolismoz beteriko irudia da.



- Zer iruditzen zaizue egilearen ekintza? Esku hartze artistikoa ala bandalismoa?
- Adierazpen artistiko guztiak zilegiak dira? Zein bai eta zein ez? Eman adibideak.